

## **EH Bilduren lore eskaintza Ategorrietako sarraskiaren 90. urteurrenean**

Pasaia eta Donostiako EH Bilduko zinegotziek lore-eskaintza egin dute gaur, maiatzak 27, goizeko lehen orduan, Ategorrietako sarraskiaren 90. urteurrena oroitzeko. Egun honetan, Pasaia portuko zazpi langile hil eta dozenaka zauritu zituen Guardia Zibilak, Ategorrietako erlojuaren parean, Trintxerpetik Donostiako erdigunera manifestazioan zihoazela, lan-baldintza penagarriengatik protesta egiteko.

Honekin lotuta, Pasaia EH Bilduk eskaera egin zion Pasaia udal gobernari Donostiako Udalarekin eta eragileekin elkarlanean, gaur, sarraskiaren 90. urteurrena betetzen den egunean, aitortza instituzionalerako ekimena egin zezan. Bi udalek ekimen hori ez egitea erabaki duten arren, alderdi guztiok aho batez onartutako adierazpen instituzionala onartu da Pasaia zein Donostiako bozeramaileen artean.

Bestalde, aste hauetan egiaztatu ahal izan dugu EH Bilduren proposamen honek harrera oso ona izan duela pasaitarren zein donostiarren artean. Pertsona askok aitortu dute ez zutela gertaera dramatiko horren berririk, nahiz eta Euskal Herrian egindako langileen sarraski handienetako bat izan.

Berezi hunkigarria izan da sarraskiaren biktimetako baten senitartekoak EH Bilduk urteurrenaren inguruan antolatutako hitzaldi batean parte hartu izana. Biktima hark oso denbora gutxi zeraman Euskal Herrian, Galiziatik etorri zen Pasaia portuan lan egitera, eta iritsi bezain laster, bere lankideen aldarrikapenekin bat egin zuen. Bere konpromisoa heriotzarekin ordaindu zuen, baina haren familia, milaka eta milaka pertsona migratzaile bezala, hemen geratu zen bizitzera eta lan egitera. Gaurko ekitaldi xume honek balio dezala, halaber, euren herrialdea utzi behar izan zutenen eta, 1931ko maiatzaren 27an bezala, gaurko Euskal Herria eraikitzen lagundu zuten guztien oroimena aldarrikatzeko.

Baina euskal langileen borrokak ez ziren hasi, ezta amaitu ere, 1931eko udaberri itxaropentsu hartan. Gure historian zehar, borroka sindikal eta sozialak ugariak izan dira. Greba, manifestazio eta pikete horiek gabe, ezin izango genuke gaur egungo gizarte-babesaren eta lan-eskubideen mailaz hitz egin. Gure herriaren historiaren zati bat da hori guztia, nahiz eta zenbaitetan iragana deserosoa izan daitekeen.

Pasaia, 2021eko maiatzaren 27a

## **Ofrenda floral de EH Bildu en el 90º aniversario de la masacre de Ategorrieta**

Concejales de EH Bildu de Pasaia y Donostia han realizado una ofrenda floral hoy 27 de mayo, a primera hora de la mañana, en recuerdo del 90º aniversario de la masacre de Ategorrieta. Este día, siete trabajadores del puerto de Pasaia fueron asesinados y otros muchos heridos por la Guardia Civil a la altura del reloj de Ategorrieta cuando se dirigían en manifestación desde Trintxerpe al centro de Donostia para protestar por las penosas condiciones laborales que tenían.

En relación con esto, EH Bildu de Pasaia hizo una sugerencia al gobierno municipal para que, en colaboración con el Ayuntamiento de Donostia y los agentes sociales, realizara hoy, día en que se cumple el 90º aniversario de la masacre, una iniciativa de reconocimiento institucional. A pesar de que ambos ayuntamientos han decidido no realizar esta iniciativa, se ha consensuado una declaración institucional aprobada por las juntas de portavoces de Pasaia y Donostia.

Por otra parte, durante estas semanas hemos podido comprobar que esta propuesta de EH Bildu ha tenido muy buena acogida tanto entre la ciudadanía pasaitarra como entre la donostiarra. Muchas personas han reconocido que no tenían constancia de este dramático suceso, pese a ser una de las mayores masacres de trabajadores perpetradas en Euskal Herria.

Ha sido un especial emotivo que familiares de una de las víctimas de la masacre hayan participado en una conferencia organizada por EH Bildu en torno al aniversario. Aquella víctima llevaba muy poco tiempo en Euskal Herria, había venido de Galicia a trabajar en el puerto de Pasaia y nada más llegar, se sumó a las reivindicaciones de sus compañeros. Pagó su compromiso con la muerte, pero su familia, como miles y miles de personas migrantes, se quedó aquí a vivir y trabajar. Sirva también este sencillo acto de hoy para reivindicar la memoria de quienes tuvieron que abandonar su país y de todos aquellos que, como el 27 de mayo de 1931, contribuyeron a la construcción de la Euskal Herria de hoy.

Pero las luchas de los trabajadores vascos no empezaron ni acabaron en aquella esperanzadora primavera de 1931. A lo largo de nuestra historia, las luchas sindicales y sociales han sido numerosas. Sin esas huelgas, manifestaciones y piquetes, no podríamos hablar del actual nivel de protección social y de derechos laborales. Todo ello forma parte de la historia de nuestro pueblo, aunque en ocasiones el pasado pueda resultar incómodo.

Pasaia, 2021eko maiatzaren 27a